

# Kartzelak salbatua

## GIPUZKOAKO BERTSO TXAPELKETA FINALERDIA

TOLOSAKO USABAL, AZAROAK 29

Sailkapena:

Unai Agirrek (517 puntu) irabazi du eta zuzenean sailkatu da finalerako. Bere atzetik geratu dira, hurrenez hurren, Beñat Gaztelumendi (501), Iñaki Apalategi (493,5), Oihana Iguaran (482), Nerea Elustondo (476) eta Beñat Lizaso (458,5).



**Kepa Matxain Iztueta**

@kmatxain



ALBERTO ELOSEGI, BERTSOZALE ELKARTEA

“Hi, saio borobila zian!” bota nion Inesi, zirikatzaile, kartzelako ariketaren faltan, sumaturik irakiten hastear zela, zerbaiten aurka egin nahi eta ezinean. Aurreko kronikan bere ahotan “modu nahiko onargarrian” jarri nituenak irakurri omen zituen, eta behin zorrotz fama hartuta, hari kosta ahala kosta eutsi nahi zion. Bai baita Ines pixka bat espezie horretakoa, marmarti sindromeduna, alde aurretik kontrara egoteko berezko jarrera duena. Atzokoan lan zaila zeukan, orde: maila oso oneko finalerdia zihoan Tolosan.

Iñaki Apalategi oso fin ari zen, puntu erantzunetan sendo eta sei puntuko motzean bereziki trebe. Oihana Iguaran, ziur asko txapelketak gehien hazi arazi duen bertsolaria, oso erregular eta asmotsu. Beñat Lizaso zuzen, ofizio erabat borobilik egin gabe baina tartean behin une onak utziz. Beñat Gaztelumendi bere ohiko mailan, distiratzan ez zuzenetan ere oso bertso egokiak josiz. Berak eta Unai Agirrek egin zuten, zortziko txikian, arratsaldeko ofizio onentsuena. Agirre bikain zebilen denean, gainontzekoei koska txiki bat aterata. Nerea Elustondo, azkenik, gorabehera batzuekin, baina han hemen perla dotoreak utziz.

Panorama zaila, beraz, Ines bezalako kritikari hagin zorrotz batentzat. Al-

boko eserlekuan nekusan, estualdietan sendo, masailak gorri eta belarriak zut, bere irizpide zorrotzak lau haizetara erakusteko balioko zion aitzakiaren baten esperoan, desesperaziotik gertu. Orduan ailegatu zen kartzela, beti hain eskuzabal, laguna salbatzera.

Hala zioen kartzelako gaiak: “Sarri pentsatu izan duzun arren, ez diozu esan oraindak”. Entzun bezain pronto purrustan hasi zen Ines: “Jarri al ziteke gai irekiagorik? Ia edozer kabitzan duk aterpe zabal horretan! Egin gabeko aitorpen bat botatzearekin aski ditek. Halako gaiek kalte egiten ziotek bat-batekotasunari”. Ideia argiago azaltzeko eskatu nion. “Jakingo duk noski taula gaineko bertsoa izebergaren punta dela ez? Jakingo duk noski horrek bat-batekotik adina daukala aurretik prestatutakotik ez? Bertsolaria entrenatuta igotzen duk horra, errimategiak landuta, errekurtsu asko barneratuta, automatismo ugarirekin. Baina, hori hala izanda ere, bazagok zerbait bertso bakoitza bakar egiten duena: unearekiko, testuinguruarekiko duen lotura. Gaia duk, besteak beste, lotura hori zedarritzeko elementu oso garrantzitsu bat. Zer gertatzen duk halako gai zabala jartzean? Gauzak asko errazten dizkioala bertsolariari: ziur asko

izango dik gaian kabitzan den bertso sortaren bat aurrez egina. Nahikoa dik hura gogoratu, pixka bat makillatu, eta botatzea. Kartzelako gai on batek eduki behar dik gehiago lotzen duen elementuren bat, bertsoaldia bakar bihurtu arazi nahi badu”.

Inesen sermoia liseritu bitartean, bertsolarien lanari erreparatu nion. Arreta piztu zidan kontu batek: seitik lauk maitasun aitortza bat egin zuten. Lautik hiruk, amari. Lagunari komentatu nion, datu kurioso bezala. Erantzuna prest zeukan hark: “Agian askotxo esatea izango duk, baina sumatzen diat joera bat, inkontzientea ziur asko, emotibitatezko, malkoaren bila joatekoa, entzulearengana iristeko modurik onena balitz bezala. Bide zilegia duk, ondo eginez gero –gaur Gaztelumendi ibili duk finen–. Baina bazauzkak arriskuak ere: azukre gaindosia, hitz ponposoen segida merkeak, poetiko ustezko kurtziladak... eta hainbatetan muga-mugan ibiltzen dituk batzuk. Entzule moduan asko estimatu diat, esaterako, gaurkoan Agirrek hartu duen bidea, auzi emozionaletatik kanpo mila aitortza egin daitezkeela erakutsiz”.

Eta hori esanda, arnasa sakon hartu eta bere baitara itzuli zen, arratsaldean aurrenekoz. ■